

## 17/06 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, Presidentea  
Xabier Aizpurua  
Josean Bueno  
Ana Marta Iriarte  
Juan Carlos Jauregui  
Mari Tere Ojanguren  
Ismael Redondo  
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2017ko irailaren 14ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duen Agindua aldatzeko Agindu proiektuari buruzkoa.**

### I. AURREKARIAK

Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak (Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendua ezartzen duen Dekretua aldatzeko otsailaren 2ko 14/2016 Dekretu bidez aldatutakoa) Sustapenaren kapituluko bere 30. artikulua 2. atalean dio ikasleak gehienez 4 aldiz aurkeztu ahal izango direla modulu profesional beraren amaierako ebaluaziora eta kalifikaziora, salbu eta Lantokiko Prestakuntza modulua kasuan, kasu horretan bi aldiz aurkeztu ahal izango direlako.

Lanbide heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2010eko otsailaren 19ko Aginduak bere 8.1 artikuluan dio bertaratze bidezko erregimenean, lanbide-modulu bakoitza lau deialditan ebaluatu ahal izango dela, salbu eta Lantokiko prestakuntza eta Proiektua moduluen kasuan, bi modulu horiek bi deialditan ebaluatu ahal izango direlako.

### II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek artikulua bakarra eta azken xedapen bat ditu:

Artikulu bakarrak 1. atala aldatzen du, adieraziz modulu profesional bakoitza lau deialditan ebaluatu ahal izango dela, Lantokiko Prestakuntza modulua kasuan izan ezik, kasu horretan bi deialdi egongo direlako.

Azken Xedapenak dio noiz sartuko den indarrean dekretua.

### III. BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

Arauaren helburua da 2010eko otsailaren 19ko Aginduaren 8.1 artikulua egokitzea, bat etor dadin 32/2008 Dekretuaren 30.2 artikuluekin, non ezartzen baita ikasleak gehienez 4 aldiz aurkeztu ahal izango direla modulu profesional beraren amaierako ebaluaziora eta kalifikaziora, salbu eta Lantokiko Prestakuntza modulua kasuan, kasu horretan bi aldiz aurkeztu ahal izango direlako.

Dena den, otsailaren 19ko Aginduan dio Proiektuaren ebaluaziora ere bi aldiz aurkeztu daitezkeela, beraz, aldatu beharra dago.

Kontseilu honek Irizpena eman zuen bere garaian otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuari buruz –Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena-, bai eta berau aldatzen zuen otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuari buruz, baina ez otsailaren 19ko Aginduari buruz, ez baitzen horrelako txostenik eskatu.

Batzorde Iraunkorrak uste du aldaketa formal bat dela eta egin beharra dagoela, eta beraz, ados dago aldaketarekin.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2017ko irailaren 18a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA